

OSOGUNEKO ERAKASKERA  
1999-2000 IKHAS-URTEA

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

1. Zer ikhusi du idazlariak?
2. Noiz eta non?
3. Eman xehetasun guziak.

(II)

HIRU ANDERE

Behar dautzuet erran zer ikhusi dudan egun hautarik batez. Izan niz Xuberon, *Eskualdun On* hunen egiten laguntzaile ditugun adixkidetarik zenbeit behar nintuela ikhusi. Eta nahi baduzue jakin egia, ez niz batere urrikitua, joan-jin<sup>1</sup> hori eginik. —Nolaz othe? —Hori... gutartean bego.

Gibeleratekoan, Mauletik Baionarat gindoazilarik burdin bidetz, trein guzia jendez mukhuru bethea<sup>2</sup> zen. Behinik behin, gure bagoncan baginen koka ahala. Halere horra non, Autevielen edo han nonbeit, igaiten<sup>3</sup> zauzkun, haizea bezen arin eta zalhu, eta harro, su hiltzetik heldu balire bezala berotuak, eta gora, bainan gora mintzo eta hiruak betan... hiru andere gazte; saltsa bezala aphainduak, xapeletan, esku-larrurik gabe bizkitartean. Egia da, <sup>ez</sup> zutela esku-larru beharrik; poxolu zituzketela.

Sarthu orduko, beren puskak<sup>4</sup> harat hunat aurdikirik «bar-khatu jende onak» ez eta «egun on», ez holakorik deus erran gabe, jartzen dire, bat hemen, bertze biak han, hari buruz-buru. Ber-borak izan balire baino gehiago ez zirela kexu ageri zuten, bertzeen poxolatzeaz. Nahiago, izaitekotz ere, oro makhur-arazi, beren buruen erakusteko, eta ahal bazuten, norbeitekin mokoka<sup>5</sup> partida baten egiteko.

Zer begiak, eta zer mihiak! Berrogoi lagun dauzkalako bagon bame hura guzia ez zen aski heientzat. Hihi-haha, irri eta kalaka<sup>6</sup>. Sei soldadok, ostatuko mahainean papoa beroturik<sup>7</sup> etxerat joaki, ez zautzuten haro gehiago eginen, gure hiru anderek baino. Deus erraitekorik ez, eta elha ez athertzen; barazuza<sup>8</sup> bezala zariotela hiruei. Arozaz, iguzkiaz, erhautsaz, hatsik ezin hartuaz, egarriaz, gosez... nik dakita zer eta zertaz? Bazerasaten Akelarre guziak bezenbat, berek.

(III) ADITZE IKASKUNTZA

- |                        |                                  |
|------------------------|----------------------------------|
| 31. Behar dautzuet     | 32. gindoazilarik (gindoazilari) |
| 33. Poxolu zituzketela | 34. Ber. berak izan balire       |
| 35. Behinik dauzkalako | 36. Barazuza bezala zariotela    |
| 37. Bazerasaten.       |                                  |

31. UKAN. Conj. à dble cplt Indic. Présent, OS. C.I.

Zueri = à vous

- |                                  |                             |
|----------------------------------|-----------------------------|
| Nik dauzuet = je vous l'ai       | (dauzketuet = je os les ai) |
| Harek dauzue = il vous l'a       | (dauzketue = il os les a)   |
| Guk dauzuegu = nous vous l'avons |                             |
| Heiek dauzute = ils vous l'ont   | etc.                        |

32. JOAN = Aller - Indicatif Imparfait

- Ni mindoan = j'allais  
 Hi mindoan = tu allais  
 Zu zinoatzin = vous alliez  
 Hura zoan = il allait  
 Gu ginoatzin = nous allions  
 Zuek zinoatzin = vous alliez  
 Heiek zoatzin = ils allaient

33. UKAN. Potentiel probable

C.D.S		C.D.P.	
Nik duket = je peux l'avoir		N. dituzket = je peux les avoir	
Hik duket/n-tu peux	"	H. dituzket/n = tu peux les avoir	
Zuk dukezu = os pouvez	"	Z. dituzkezu = os pouvez les avoir	
Harek duke = il peut	"	H. dituzke = il peut les avoir	
Guk dukegu = nous pouvons	"	G. dituzkegu = nous pouvons les avoir	
Zuek dukezu = os pouvez	"	Z. dituzkezu = os pouvez les avoir	
Heiek dukete = ils peuvent	"	H. dituzkete = ils peuvent les avoir	

34. IZAN. Eventuels

1 <sup>er</sup> Forme	2 <sup>ème</sup> Forme	3 <sup>ème</sup> Forme
(si j'étais)	(si j'étais)	(si j'avais été)
Ni izaiten banintz	N. izan banindadi	N. izan banintz
Hi -" - bahintz	H. -" - bahindadi	H. -" - bahintz
Zu -" - bazine	Z. -" - bazinte	Z. -" - bazine
Hura -" - balitz	H. -" - baladi	H. -" - balitz
Gu -" - bazine	G. -" - bazinte	G. -" - bazine
Zuek -" - bazintzete	Z. -" - bazintzete	Z. -" - bazintzete
Heik -" - balire	H. -" - balite	H. -" - balire